



Arartekoaren 2017IR-92-16 Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 11koa, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Errementari kaleko 26. zenbakian dagoen eraikinean esku hartzeko eskaerari eman dion erantzunaren inguruan.

Aurrekariak

Errementari kaleko 26. zenbakian dagoen etxean (Araba-Eskibeltarren jauregia) bizi den pertsona batek eraikinaren egoera txarra eta segurtasunik eza salatu ditu gure erakundean.

Eraikina Gasteizko Hirigune Historikoko monumentu multzoaren zati da eta babes maila ertaina du, babes-araudiari dagokionez. Hori dela eta, bete behar ditu Euskal kultura ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 20. eta 35. artikuluetan ezarritako betebeharrak.

Horregatik, kexagileak aipatu duenez, hainbat aldiz eskatu dio Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari esku har dezan eta aurki dezan jabeari birgaitze- plan bat eskatzeko bidea.

Erreklamazioan azaldutakoaren arabera, 2015eko uztailaren 15ean, irailaren 2an eta urriaren 8an zuzendu zen aipatutako sailera, baina gaurdaino ez du erantzunik jaso.

Arartekoak informazioa eskatu dio Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailari, aipatutako eraikina dela eta sailak bere eskumen-eremuaren barruan burutu dituen jardueri buruz, 7/1990 Legean jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak idazki bat bidali dio Arartekoari, kexagileari emandako erantzunaren berri emateko. Testuaren arabera, hain zuzen ere, 2016ko otsailaren 12an, idazki bat bidali zion kexagileari, honako hau soilik esateko: *“Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzan jasotzat jo zirela bere 2015eko uztailaren 17ko, irailaren 2ko eta urriaren 8ko datadun idazkiak”*.

Informazio horri erreparatuta, eta horren edukiak aztertu ondoren, Arartekoak honako gogoeta hauek egin ditu:

Gogoetak

Kexagileak beharrezkotzat jotzen du Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren esku hartzea, Araba-Eskibeltarren jauregia behar bezala zaintzea bermatzeko.

Azpimarratu beharra dago (kexagilearengandik jasotako informazioari jarraikiz) eraikina Gasteizko Hirigune Historikoko monumentu multzoaren zati dela.





Eraikinaren babes maila ertaina da, Gasteizko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa kalifikatzeko abenduko 312/1997 Dekretuak aurreikusitakoarekin bat.

Xedapen horrek eraikinak bete behar dituen hainbat baldintza ezartzen ditu; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak baldintza horiek zehaztu ditu kexagileak egindako kontsultari erantzuteko 2015eko maiatzaren 20an bidalitako txostenean.

Eraikina babesteko araudia behin onartuta, zaintzeari loturiko betebeharrak dagokienez, hirigintzako araudiaren aurreikuspenak –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 199. artikulua kasua–, eta batez ere kultura ondarea babesteko arauak hartu behar dira kontuan. Adibidez, 7/1990 Legearen 20. artikulua ezartzen duenez, inbentariatuak kultura ondasunen jabeak behartuta daude ondasuna “bere osoan irautea bermatzeko eta galdu, puskatu edo hondatu ez daitezen, behar bezala zaintzera, babestera eta horiei bere onean eustera”.

Jabeak betebeharrak horiek betetzen ez baditu, ondarea babesteko araudiak hainbat prozedura berezi zehaztu ditu.

Ondarea babesteko legearen 35.2. artikuluaekin bat, foru aldundiaren organo eskudunari dagokio, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eskatuta, jabeak eskatzea “epe egoki batean” behar diren lanak burutu ditzan, eraikinaren osotasuna bermatzeko eta galtzea, puskatzea edo hondatzea saihesteko. Aurreikusitako epea igarotzen denean, foru-organok betearazpen subsidiarioa agindu dezake, jabearen kontura.

Ildo berean, ondarea babesteko legearen 35.1. artikulua zehazten duenez, kultura-ondasun kalifikatu bat edo inbentarioan jasotako bat bere onean eusteko konponketa-lanak egitea beharrezkoa denean edo ondasuna “arrisku gorrian” dagoenean, jabeak dagokion foru aldundiari egoeraren berri eman beharko dio, horrek neurri egokiak har ditzan.

Foru-aldundiak berak zuzenean egin ahal izango ditu ondasunak osorik irautea bermatzeko atzeratu ezin daitezkeen lanak. Lanak zuzenean egitea ez da eragozpena izango horien kostua jabeak ordaintzeko, bidezkoa izanez gero.

Xedapen horrek zehazten du euskal legediak foru-organoei esleitzen dien eskumen xedaezina –lanak egikaritzeko aginduak emateko–. Horrela, lor daiteke jabeak dagokien betebeharrak betetzea, babestutako eraikinak zaindu, egoera onean mantendu eta birgaitzeari dagokionez. Agindu horiek zehaztu behar dituzte eraikinaren osotasuna bermatzeko eta galtzea, puskatzea edo hondatzea saihesteko behar diren lanak. Lanak egikaritzeko epe bat ezarriko da, baita betearazte subsidiarioa burutzeko epea ere, lanak lehenengo epean hasten ez badira. Era berean, berehalako arriskurik egonez gero, bai ofizioz, bai jabeak hala eskatuta, foru-organok zuzenean agindu dezake behar diren neurriak hartzea, eraikinaren osotasuna bermatzeko.





Kultura arloko administrazioak eman ditzakeen agindu horien osagarri gisa, euskal hirigintzako araudiak, hain zuzen, ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 199. artikulua, jabeen eginbeharra ezartzen du eraikinak "segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko". Kasu horretan, udalei dagokie eraikinak konpondu, zaindu eta birgaitzeko obrak egiteko agindua ematea, "hondaturik dauden edo benetako erabilera legitimorako baldintza nahikorik ez duten eraikuntzei dagokienez".

Horiek horrela, aipatu beharra dago Gasteizko Udalak abian jarri dituela hainbat jarduera eraikinaren jabea hirigintza-betebeharrak betetzera behartzeko; betebeharrak horien helburua eraikinak segurtasun eta osasun egoeran mantentzea da. Testuinguru horretan, Arartekoak Gasteizko Udalari egindako gomendioa aipatzea komeni da¹.

Ondorioa

Arartekoak amaitutzat jotzen du bere esku-hartzea, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak kezagilearen eskaerari emandako erantzuna aztertu ondoren.

Hala eta guztiz ere, kultura-ondasunak babesteko eskumena duten foru-organoen esku hartzeko esparrua aipatu behar da; esparru horrek Euskal kultura ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako eginbeharrak betetzea eskatzeko zehaztu da, hain zuzen ere.

Edonola ere, Arartekoak esan behar du euskal kultura-ondarea babesteko eskumena duten euskal administrazioek (Eusko Jaurlaritzak, udalek eta foru-organoez) koordinazio-mekanismo azkarrago eta eraginkorragoak ezarri beharko lituzketela kultura-ondarea behar bezala babestea bermatzeko eta hondatzea edo galtzea saihesteko, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak esleitutako eskumen-eremua kontuan hartuta.

¹ Arartekoaren 2015R-584-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 2koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio har ditzala dagozkion neurriak Gasteizko higiezin bat kontserbatzeko eta birgaitzeko luzatu diren exekuzio-aginduak betearazteko.